

ANTZUOLA / Patxiku Txerren sariketako liburuxka aurkeztuko dute bihar

ANTZUOLA. DV. Patxiku Txerren sariketan parte hartu duten neska-mutikoek egindako zenbait ipuinekin liburuxka osatu da eta bihar arratsaldeko zazpitan aurkeztuko dute liburutegian. Hamargarren edizioa du aurten Patxiku Txerren literatur sariketa xume bezain polit honek. Urtero-urtero liburuxka ateratzen du Udalak Patxiku Txerrenera aurkeztutako lanekin eta bilduma polita egin da dagoeneko. Liburuari buruzko azalpenak eman aurretik, arratsaldeko seietan, Apika taldeak ipuin kontaketa saioa eskainiko du leku berean, hau da, liburutegian.